



HONDARRIBIKO 2020KO AURREKONTUEI ZUZENKETAK

Hondarribiko EHBildu udal taldeak, honako zuzenketa hauek proposatu ditu 2020ko jardunari begira. Honekin batera, Hondarribiko EHBilduk jarraipen batzordea sortuko du udal taldearen baitan, onartutako egitasmoak bete/gauzatu daitezzen ziurtatzeko.

Laburpena:

1.-Mariñel itsasontzia kultura-ondarea izendatzeko	2.500 €
2.-Enrike Lekuona ikerketa beka	12.500 €
3.-Kataluniako Cadaqués udalerriarekin senidetzeko proiektua	4.000 €
4.-Aldaketa klimatikoaren aurkako plana (sentsibilizazioa).	18.000 €
5.-Roke Mendez eta Jose Luis Mondragon oroimen harria	2.000 €
6.-Emakumea eta itsasoa ikerketa beka	7.000 €
7.-Musika Eskola antolaketa ereduaz aztertzeko proposamena	18.000 €
8.-Jaizkibel-Jaitzubia ingurumen egitasmoa	13.500 €
9.-Berdintasun teknikaria kontratatatzeko	60.000 €
GUZTIRA	137.500 €

1.-Mariñel itsasontzia kultura-ondarea izendatzeko 2.500 €

Mariñel itsasontzia, Muruaga ontziolan eraiki zen, Bermeon, 1985 urtean. Hegaluzetarako ontzia da, 21,30 metro luze da eta diseinu klasikoa du. Kroskoa zurezkoa du, kalitate bikainekoa. Esan daiteke Hondarribiko azken itsasontzi klasikoa dela. Hondarribiko Udalak erosi zuen, 2012 urtean eta "Sustrai" taldearekin koordinatuta, itsasontzia zaharberritu da herriaren arrantza irudia berreskuratzeko eta hondarribiar nahiz bisitariak gogoan izateko Hondarribian arrantzak izan duen garrantzia. Lan hau guztia egin ondoren eta gure kide Enrike Lekuonak izandako zorigaitzoko istripuaren



ondorioz zendu zenak sortutako asaldatzeak, proiektuarekin ez atzera ez aurrera egi-
tea ekarri zuen. Hori dela eta, hasitako lana burutze aldera, itsasontzia kultura-onda-
rearen katalogoan onartua izan dadin proposatu dugu eta tramitaziorako, 2500€ ko
partida bat esleitzea.

2.-Enrike Lekuona ikerketa beka.....12.500 €

Hondarribiko EH Bildu Udal Taldeak Itsasoa, Ondarea eta Euskara Enrike Lekuona
Ikerketa Beka sortzea proposatu dio Hondarribiko Udalari, Arma plaza fundazioak ku-
deatu dezan, Enrike Lekuonaren familia, Aranzadi Zientzia Elkarte eta “Sustraia bo-
luntario taldea” laguntzaileak direla.

2017ko uztailaren 12an istripu baten ondorioz hil zen Enrike Lekuona. Tradiziozko
arrantza itsasontzi baten berreskuratze eta musearatze lanetan zebilela. Itsas ingeni-
aria ikasketez eta lanbidez, esparru askotan talde lanean aritua: euskara, ondarea,
kultura, artea,...

Egitasmo honen bitartez, Enrikeren nahiari eutsi nahi diogu, gure ondare kulturala-
ren ikerketa eta defentsa aldarrikatzeari alegia, belaunaldi berriek, berak ereindako
haziari hel diezaioten.

Ikerketa beka hiru urtetik behin deituko genuke eta 10.000€koa litzateke.

3.-Kataluniako Cadaqués udalerriarekin senidetzeko proiektua 4.000 €

Bada bide bat Cadaques eta Hondarribia batzen duena. Bi herriotako itsasargietatik
hasten den bidea eta GR11 du izena. Bide honek bi itsaso batzen ditu, bi natur paisaia
ezberdin zein aberats eta bi kultura txiki eta oparo. Pirinioak dira gure izaera eta izatea
batzen duen tokia eta bidean beste hainbat aurkitu ditzakegun arteria. Bi herri, bi na-
zio, bi hizkuntza eta bide bat.

4.-Aldaketa klimatikoaren aurkako plana (sentsibilizazioa)..... 18.000 €

Urrian ospatutako udalbatzan, EHBilduk aurkeztu mozioa onartu zen Larrialdi Klima-
tikoaren inguruan, egoeraren larritasuna aitortzea helburu eta Larrialdi Klimatikoari
behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin.



Honekin batera, herri mailako sentsibilizazio plana abiatzea proposatzen dugu eta horretarako, 18.000€tako aurrekontua esleitu, eta Agenda 21en egiten ari den lanke-tarekin batera uztartu.

5.-Roke Mendez eta Jose Luis Mondragon oroimen harria 2.000 €

Roke Mendez eta Jose Luis Mondragon Hondarribiko Asturiaga hondartzan erailak izan ziren. Haien oroimenean hondartzan bertan oroitarri bat jartzea proposatzen dugu.

6.-Emakumea eta itsasoa ikerketa beka 7.000 €

Dagoeneko aldez aurretik martxan zegoen egitasmoa dugu, baina deialdia egin eta hutsik gelditu zenez, bertan behera gelditu zen. Bi urtetik behin esleitzen den beka izanik 2020an dagokio berriz deialdia egitea eta aurrekontuetan islatuta ikusi ez dugunez, bertan sar dadila eskatzen dugu.

7.-Musika Eskola antolaketa eredu aztertzeke proposamena.....18.000 €

Ez da berria Musika Eskolarekin gertatzen ari diren kudeaketa eta finantzazio gorabeherak. Kontutan izanik udalak eraikitako Kultur-Etxean gauzatzen dela jarduera eta hori kudeatzen duen elkarteak izan dezakeen egoera, akordio berriak eta beste antolaketa/kudeaketa/eraketa eredu ezberdinak aztertu eta lantzea proposatzen dugu eta horretarako, 18.000€ aurrekontua esleitu dadila.

8.-Jaizkibel-Jaitzubia ingurumen egitasmoa.....13.500 €

Jaizkibel eta Jaitzubia Hondarribian ditugun bi altxor natural dira. Natura 2000 sarearen inguruan daudenez, mantenu eta jarraipen lanak egiten dira eragile ezberdinen aldetik, baina, kontserbaziorako egon daitezken premiak tokian bertan konpontzeko



ez dago partidarik eta interesgarria dela uste dugu udala bera inplikatzea eremu babestu hauen zaintzan. Horretarako, eta eragile ezberdinen laguntzarekin, urtero 13.500€ko poltsa bat sortzea proposatzen dugu, eremu horietan kontserbazio lanak egiteko.

9.-Berdintasun teknikaria kontratatzeke60.000 €

Udalean ez dago genero lanketarik egiten duen sailik ez teknikaririk. Uste dugu premiazkoa dela berdintasun teknikaria, eta eskaera berria ez bada ere, lortu arte proposatzen jarraituko dugu. Horretarako beraz, datorren urterako aurrekontuan 60.000€ko esleitzea proposatzen dugu.

Gure zuzenketak aurrera egiteko eskatzen dugun kopurua guztira137.500 €